

BERGARAKO 2030 AGENDAREN PLAN ESTRATEGIKO JASANGARRIA ADOSTEKO PROZESUA
**HERRITARREN LURRALDEA, BIODIBERTSITATEA ETA MUGIKORTASUNARI BURUZKO
MAHAIAREN 2. BILERA**

Bertaratutako en zerrrenda:

- Larraitz Uribesalgo (Herri hezitzailea)
- Lander Juaristi (Herri hezitzailea)
- Gorka Buruaga (Ubera auzoa)
- Aiert Lizarralde (Mekolalde auzoa)
- Amaia Kapelastegi (Buruñao auzoa)
- Mila Elorza (Angiozar auzoa)
- Xabier Zabala (Zetabi Arkitektoa)
- Adrian Cuadros (Arkitektoa)
- Xabier Berasategi (BEB arkitektoa)
- Jon Goikoetxea (Arkitektura bulegoa)
- Maite Aristegi (Baserritarra)
- Kiko Alvarez (Biologoa)
- Iñaki Madinabeitia (Mendia Bizirik Elkartea)
- Aitor Aldazabal (Kukubaso elkartea)
- Joseba Susaeta (Kukubaso elkartea)
- Leticia Alvarez (Udaleko Hirigintza teknikari burua)
- Leire Garmendia (Izadi 21 aholkularitza-taldea)
- Oihane Arruabarrena (Izadi 21 aholkularitza-taldea)

Bileraren hasiera-ordua: 18:00.

Udalak kontratatutako aholkularitza-enpresak “Begara 2030 egin herrixa” prozesuaren baitan orain arte emandako urratsak azaldu ondoren, orain arteko mahaietan (udaleko gaikako batzordeetan nahiz herritarren gaikako mahaietan) jasotako ekarpenetan oinarrituz diseinatu berri duen Plan estrategikoaren 1.zirriborroa aurkeztu du eta ale bana banatu die gerturatutakoei.

Saioren lehen zatian Lurraldeari, Mugikortasunari eta Biodibertsitateari nahiz Paisaiari lotutako gaiekin erlazioa duten 3 jarduera programak aztertu eta lantzeko aukera ireki da. Honela, gerturatutakoak jarduera programetako bakoitzean taldekatu dira eta jarduera-lerro bakoitzaren baitan jasotako ekintzen inguruko ekarpenak egin dituzte eta horien artean eztabaidatzeko aukera izan dute.

Hauek dira jaso diren ekarpenak:

1. HELBURU ESTRATEGIKOA: HIRI-EREDU INKLUSIBO ETA JASANGARRIA SORTZEA, HERRITARREN ONGIZATEARI BEGIRA DAGOENA ETA KLIMA-ALDAKETA ARINTZEAZ GAIN, HORRETARA EGOKITZEN DENA

Helburu estrategikoaren izenburuan klima-aldaketak ikuspuntu mugatua du eta "larrialdi ekologikoa" hitza egokiago iruditu zaio gerturaturiko herritar bati. Hori dela eta, aholkularitza-talde honen ustez, "... eta klima-aldaketa arintzeaz gain" erabili ordez, "... eta larrialdi ekologikoa arintzeaz gain" esamoldea erabili daiteke baina egokitzapenaren kasuan, egokiagoa iruditzen zaigu helburu estrategiko hau "klima-aldaketara egokitzeko gai dena" esamoldearekin amaitzea.

1.1. Jarduera programa: HIRIGINTZA OREKATU, ERRESILIENTE ETA BIOKLIMATIKO BATERAKO ERALDAKETA.

1.1.1. Hirigintza-antolamendu orokorrean lurraldearen funtzionalitate ekologikoa eta ekosistemen zerbitzuen ikuspuntua integratu.

1.1.2. Lurraldearen antolamendurako tresna ezberdinetan auzoak ere aintzat hartzea.

1.1.3. HAPO berria 2023an diseinatzen hasteko urratsak ematea.

Lehen hiru ekintzak bakarrean jaso daitezke: HAPO berriaren baitan (1.1.3) jaso beharko baitira 1.1.1 ekintzan aipatzen den ikuspuntua eta 1.1.2. auzoen antolamendua. 1.1.3 ekintza 1.1.1 ekintza izatera igaroko litzateke eta 1.1.1 eta 1.1.2 ekintza horren baitako zenbait jarduera izatera igaroko lirateke.

1.1.4. Etxebizitzen birgaitzea erraztu.

Birgaitzea modu zabalagoan ulertu behar da. Hirigintza eredu berriak aztertu behar dira: zerbitzu komunak dituzten eraikinak, etab. Gune bakoitzak behar ezberdinak ditu, esaterako, Alde Zaharra birgaitzeak eraikitze-formula berriak eskatzen ditu, beste tratamendu bat eskatzen du.

Baserrien birgaitzeak ere garrantzia du landa eremuaren biziraupenerako. Bizigarritasun aukerak aztertu beharko lirateke baserriari bigarren aukera bat emateko, baserria bizirik irauteko formula ezberdinak aztertu beharko lirateke. Hori dela eta, aholkularitza-enpresaren ustez, ekintzaren izenburuari "auzo edo gune bakoitzaren ezaugarrietara eta beharretara egokituz" gehi dakioke (hau da, 1.1.4 ekintza horrela birformulatuko genuke: Etxebizitzen birgaitzea erraztu, auzo edo gune bakoitzaren ezaugarrietara eta beharretara egokituz."

1.1.5. Eraikitako ondarearen nahiz hiri-altzarien zaintzarako eta horien balioen ezagutzarako jarduerak gauzatu.

1.1.6. Industria-plangintza berri bat antolatzea irizpide jasangarriak aplikatuz.

Izenburu honekin industria jarduerari buruz ari garela dirudi, beraz "Industria eremuaren plangintza"-gatik aldatu beharko litzateke.

1.1.7. Auzoek dituzten oinarriko azpiegitura eta zerbitzu beharrak (ur hornidura, bideak, saneamendua, etab.) inbertiatu eta faseka garatzeko inbertsio-plangintza bat garatzea.

Banda zabalak du lehentasun handia auzoen garapen eta biziraupenerako (pandemia garaian agerian geratu den gabezia da).

1.2. Jarduera programa: HIRI-MUGIKORTASUN JASANGARRIAREN GARAPENA BULTZATU.

1.2.1. Mugikortasuneko plan jasangarria diseinatu eta martxan jarri.

Lehen ekintza honen barnean egongo lirateke beste guztiak gehiengoaren ustetan. Beraz agian jarduera programaren izenburuan joan beharko litzateke. Dena den, aholkularitza-taldearen ustetan, egokiagoa litzateke lehenago mugikortasun-planaren indarraldia zein den ezagutzea.

Mugikortasun plana amaitu bitartean, bukatzeko zain egon gabe, paraleloki neurriak martxan jarri beharko lirateke.

1.2.2. Eremu publikoa birdiseinatzea, oinezkoa erdigunean jarriz:

Ekintza garatzea, bizikletaren bidezko mugikortasuna barruan hartuz. Adibidez: bizikletaz aritzeko baliabideak eskaintzea, erabilera sustatzearekin batera (paraleloan egin daitezela). Azken horien adibideak: bizikleta eta patinete elektrikoen alokairu publikoa, lokal hutsak baliatu bizikleta aparkaleku publiko eta zaintzapeko gisara (lapurretak, bustitzea... ekiditeko), bidegorri-sare zabala eta eroso eraikitzea (herri barruan, auzoetara eta inguruko herrietara doana).

Eskolako eremu seguruak sortzea.

1.2.3. Motordun ibilgailu pribatuaren erabilera arrazionalizatzea

TAO ordainpekoa ez izatea, egun dagoen ordaindu gabeko sistemak ondo funtzionatzen duelako.

Aparkaleku perimetralak jartzea (horretarako eraiki gabeko eremuak aprobetxatzea, pisu ugaritako eraikinak...) eta horietatik herrigunera oinez, bizikletaz edo autobusez mugitzeko aukerak ematea.

1.2.4. Mugitzeko modu alternatibo seguruak bultzatzea

1.2.5. Garraio publiko eraginkorra bermatzea, herriaren eskalara egokitzen dena:

Udalerrri barruan ibilbidea egiten duen autobus zerbitzua zabalagoa izatea eta ibilbide luzea dutenak herri barrurako sarrera ez izatea. Herri tamainara/eskalara egokituriko garraio publikoa egokitu beharko litzateke (ibilgailu txikiagoak).

Auzoetako taxi zerbitzua indartzea, doakoa eta elbarrientzako egokitutako ibilgailu gehiago jarriz.

1.2.6. Udal biltegiak zentralizatzea kotxe bidezko udal-langileen mugimenduak ekiditeko.

1.2.7. GI-627 eta Ertzainaren arteko zubiari irtenbidea eman.

Kenduko lukete, ez dute arazorik ikusten puntu horretan.

1.2.8. San Joango industrietara doan errepidea hobetu (Elgetarako noranzkoan dagoena)

1.2.9. Mugikortasun jasangarriaren aldeko sentsibilizazioa lantzea.

Oinezko nahiz bizikletazko mugikortasuna sustatzeko "metrominuto" moduko panelak jartzea.

1.2.10. Landa eremuetako irisgarritasuna bermatu.

Oinez, bizikletaz nahiz autobusez mugitzeko azpiegitura edo alternatibak sortu.

1.3. Jarduera programa: BERDEGUNEEN ETA NATURA-ONDAREAREN KUDEAKETA-EREDU BERRIA SUSTATU.

1.3.1. Bergarako natur ondarearen diagnostiko osoa izateko beharrezko ikerketa-lanak garatu

Diagnostikoaren aurretik egongo litzateke Estrategia bat garatzea, honen barnean noski natur ondarearen diagnostiko bat eta ekintza-plan bat, urratsez urrats natur ondarea eta berdeguneen kudeaketa eredu berri bat lortzeko. Udalerriaren eremu osoaren azterketa egin beharko litzateke.

Lehen sektorearen jarduerak garrantzia handia du eta loturik dago guztiz lurzorua antolamendu eta natur eremuaren kudeaketarekin. Basogintzak ez ezik nekazaritza eta abeltzaintza jarduera zaindu eta jarraitu beharra dago ere, beraiek baitira paisaiaren erantzule nagusiak. Beraz, ezartzen den estrategia horretan lehen sektorearen jardura bermatu, arautu eta laguntzea jaso beharko lirateke eredu jasagarri baten bidean. Landa Garapenerako elkartearekin lankidetzan, eskualderako diseinatu den Landa Garapenerako plangintzarekin bat egin beharko luke (ekonomiari dagokion helburu estrategikoan aintzat hartu beharko lirateke bertan zehazten diren helburu eta programak). Antzuolako adibidea aztertu beharko litzateke.

1.3.1. ekintzari dagokionez jasotako ekarpenak aintzat hartuz, aholkularitza-taldeak ekintza honela birformulatzea proposatzen du:

“1.3.1 ekintza: Bergarako natur ondarea babesteko udal estrategia bat landu, lehen pauso moduan natur ondarearen diagnostiko osoa izateko beharrezko ikerketa-lanak garatuz.”

- Lehenik, natur ondarearen eta berdeguneen inguruko azterketa edo diagnostikoa egitea
- Diagnostikoa aztertu ondoren, ekintza-plana diseinatzea eta abian jartzea." 1.3.1 ekintzarekin ados bazaude, orduan 1.3.2a ekintza errepikatua litzateke eta kendu beharko litzateke. Etorkizunean pentsatuz, ni 2 ekintzak mantentzearen aldekoa naiz, planaren ebaluazioa egiten dutenean hobe da 2 ekintza horiek bere aldetik ebaluatzea ze bestela ekintza bakar gisa, askoz ere zailagoa izango baita ekintza hori amaituta egoerara heltzea...
- Espezie ezberdinen mugikortasunari buruzko ezaugarrien ikerketa burutu (lotura ekologikoa bermatu)
Honen gainean ez daude guztiak ados. Esfortzu handiegia suposatzen du gai honi heltzeak, aurretik hartu beharreko lehentasun handiagoko gaiak baitaude: lehenik habitatak babestu beharko lirateke.

1.3.2. Natura-ondarearen babesa eta bere erabilera jasagarria ahalbidetuko duen plan berezi baten osaketa:

HAPOa izango litzateke babeserako tresna eta 1.3.1.ean aipatzen den diagnostikoari loturik diseinatut beharko litzateke ekintza-plan bat. Beraz bi ekintzak loturik egongo lirateke.

Aholkularitza-taldearen ustez, 1.3.2 ekintzak lotura zuzena du 1.3.1 ekintzarekin eta beraz, honela berridatzita geratuko litzateke: “1.3.2 ekintza: Begarako natur ondarea babesteko udal estrategiaren baitan, ondarearen babeserako eta kudeaketarako plan berezia diseinatzea eta abiaraztea”.

- Lursail pribatuetan dauden basoen edo landaketen ateratze-lanak egin ondoren, lursailak eta herri-bideak egoera egokian uzten direla bermatzeko neurri eraginkorrak finkatzea.
Lursail pribatuetan ez ezik lursail publikoan ere eredia eman beharra dago egiten diren baso ateratze lanetan.

1.3.3. Udaletik ingurumen eta biodibertsitate balio handienak dituzten lurren erosketa-programa martxan jarri.

Izenburuan bertan zehaztu beharko litzateke erosketa zein helbururekin egin nahi den.

Hiri inguruan zehar gerriko berde bat sortzea izan daiteke helburuetako bat, horretarako beharrezkoa izango baita lurren erosketa.

Erosketaz gainera lagapenak/ alokairua ere formula baliogarriak izan daitezke.

1.3.4. Herritarrak natura-ondarearen zaintzan inplikatzeko neurriak ezarri eta eragileen arteko lankidetzeta-sarea sortu:

1.3.5. Herriko berdeguneak zabaldu, horien arteko lotura bermatu eta berdeguneen sare bat osatzeko kudeaketa-plana diseinatu:

Hiri barruan dauden berdeguneen sarea osatzea beharrezko da, baita ere berdeguneak herritarrei zabaltzea, irekitzea eta horretarako egokitzea, erabilera errespetuzkoa sustatuz eta balioan jarriz.

1.3.6. Paisaiaren artisauak zaindu eta horiei laguntza eman.

“Paisaiaren artisauak” kontzeptua ez da ondo ulertzen eta edozertarako laguntza ematea adieraztea ez da egokia. Baso-jabe, nekazari eta abeltzainei beraien jardunean natur eremuaren zaintza eta kudeaketa jasangarriaren alde egin dezaten laguntzea egokiago litzateke.

Kasu horretan 1.3.4. ekintzarekin bat egingo luke. Bateragarriak dira.

1.3.7. Ibaia eta errekek zaindu, balioan jarriz.

Ibaiari bizkarra eman zaio orain arte eta pausuak eman behar dira ibai eta ibaiertzak berreskuratu eta herritarrei irekitzeko.

Oro har, Bergaran dagoen natur ondarea ezagutu eta herritarrei helaraztea ere garrantzitsua da, ikuspuntu pedagogikoa landu beharra dagoelako: ezin zaindu ezagutzen ez dena.

Natur ibilbideek auzo eta hiriaren oinezko loturak ahalbidetzen dituzte. Hauek ezagutarazi eta irekita mantentzea garrantzitsua da, beraz, mantenu lanak egin beharko lirateke, auzolanean agian.

Azken biak ekintza berriak izan daitezke edo bestela, dagoeneko badauden ekintzetan barneratuko dira, ekintza horiek garatzen lagunduko duten jarduera moduan.

Saioaren bigarren zatiaren helburua gertuko etorkizunean ezinbesteko garrantzia izanik lehenetsi beharreko ekintzak identifikatzea izan da. **Hona hemen jarduera programa bakoitzean lehenetsi diren ekintzak:**

1.1. Jarduera programa: HIRIGINTZA OREKATU, ERRESILIENTE ETA BIOKLIMATIKO BATERAKO ERALDAKETA.

1.1.3 HAPO berria 2023an diseinatzen hasteko urratsak ematea.

1.1.4 Etxebizitzaren birgaitzea bultzatzea.

1.1.6. Industria-plangintza berri bat antolatzea irizpide jasangarriak aplikatuz.

1.1.7. Auzoek dituzten oinarrizko azpiegitura eta zerbitzu beharrak (ur hornidura, bideak, saneamendua, etab.) inbentariatu eta faseka garatzeko inbertsio-plangintza bat garatzea.

1.2. Jarduera programa: HIRI-MUGIKORTASUN JASANGARRIAREN GARAPENA BULTZATU.

1.2.2. Eremu publikoa birdiseinatzea, oinezkoa erdigunean jarriz (herrigunean zein auzoetan).

1.2.3. Motordun ibilgailu pribatuaren erabilera arrazionalizatzea.

1.2.10. Landa eremuetako irisgarritasuna bermatu.

1.3. Jarduera programa: BERDEGUNEEN ETA NATURA-ONDAREAREN KUDEAKETA-EREDU BERRIA SUSTATU.

1.3.1. Begarako natur ondarearen diagnostiko osoa izateko beharrezko ikerketa-lanak garatu.

1.3.2. Natura-ondarearen babesa eta bere erabilera jasangarria ahalbidetuko duen plan berezi baten osaketa.

1.3.5. Herriko berdeguneak zabaltu, horien arteko lotura bermatu eta berdeguneen sare bat osatzeko kudeaketa-plana diseinatu:

Saioari amaiera eman aurretik, aholkularitza-enpresako kideek herritarrekin antolatuko den hurrengo saioa uda ondoren antolatuko den herri-batzarra izango dela aipatu dute. Udaran zehar Udalak Plan Estrategiko Jasangarria landuko duela eta udara ondoren herri-batzarrean planaren aurkezpena egingo dela adierazi dute.

Honenbestez, parte-hartze saioa 20:00etan amaitu da.